

EUSKALTEL TALDEAREN ENERGIA-POLITIKA

Euskaltel Taldeak, zeinak konpromisoa hartua duen klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta jakitun den bere jarduerak duten inpaktuarena, Energia Kudeaketako Sistema bat hartu du, UNE-EN ISO 50001 Arauan oinarritua. Sistema horren bidez, energia-kontsumoen kudeaketa modu jarraituan hobetu nahi da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitu.

Helburu hori bermatzeko, Euskaltel Taldeak, kide guztien konpromisoa lagun, hainbat jarraibide eta helburu ezarri ditu energiaren kudeaketa optimizatzeko, betiere gure jarduna etengabe hobetzeko ahaleaginean. Zuzendaritzak bere egin ditu konpromiso hauek:

- Etengabe hobetzea Euskaltel taldearen jarduna, energiaren kontsumoari eta Energia Kudeatzeko Sistemari dagokienez.
- Energiaren kontsumo eraginkorra eta energia aurrezteko bideak sustatzea, horretarako teknika egokiak erabiliz instalazioetan.
- Egungo teknologiak hobetzea eta berriak martxan jartzea instalazioetako energia-kontsumoa eraginkorragoa izan dadin.
- Energia aurrezteko eta gutxiago kontsumitzeko ohitura zabaltzea langileen artean eta Taldearen instalazioak erabiltzen dituzten gainerako pertsonen artean.
- Produktu energetikoki eraginkorren erosketa sustatzea, energia-errendimendua hobetzeko.
- Lege-betekizunei eta Taldeak energiaren erabilera, kontsumo eta eraginkortasunari buruz sinatutako gainerako betekizunei jarraitzea.
- Taldeak ezartzen dituen helburu energetikoak betetzeko behar diren informazioa eta baliabideak eskura daudela ziurtatzea.
- Oro har, aurrez esandako ekintzen bidez, ingurumena zaintzea eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murrizten laguntzea, hala ingurumen-aztarna ere murrizteko.

Lantalde osoari ematen zaio politika horren berri, eta aztertu egiten da aldizka, egiaztatzeko une oro egokia dela Euskaltel Talderako.



Jose Miguel Garcia Fernández jauna
Kontseilari delegatua